

✦ 2023ko GARIZUMA

DESDERDINKERIA
GELDIARAZTEA

*zure
esku dago*

Haur eta familientzako
jardueren koaderno



**Begiratu argazkiari: zer ikusten duzu?
Ba al zenekien erosten dugun arropa
asko haurrek egindakoa dela?**

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

Borondatezko barau-eguna
2023ko otsailaren 10a, ostirala
Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2023ko otsailaren 12a, igandea



GARIZUMAKO OTOITZAK

GARIZUMAKO I. ASTEA

Jesus Jauna, geurekoiak izateko tentaldian ibiltzen gara askotan, besteak baino hobeak eta garrantzitsuagoak garela sinetsita. Erakutsi iezaguzu apalagoak izaten. Eta gauza gehiago izateko grina izan beharrean, ikas dezagula daukaguna beharrean daudenekin partekatzen.

GARIZUMAKO II. ASTEA

Jesus, lagun iezaguzu benetan adora zaitzagun, gizaki guztiak maitatuz, barkatuz, zintzo eta arduratsuak izanez. Maite zaitugu eta zugan sinesteak ematen digun poza zabaldu nahi dugu.

GARIZUMAKO III. ASTEA

Jesus Jauna, badakigu maite gaituzula, eta zintzo eta zoriontsuak izateko bidea zarela. Lagun iezaguzu gizaki guztiak diren bezala maitatzen, edozein dela ere haien jatorria, arraza, azalaren kolorea edo erlijioa.

GARIZUMAKO IV. ASTEA

Jesus maitea, San Josef bezalakoak nahi dugu izan, zure lurreko aita bezalakoak. Gizon jator eta langilea zen, eta Jainkoa, zure ama Maria eta bidean topatu zenituen gizon-emakumeak maitatzen erakutsi zizun.

GARIZUMAKO V. ASTEA

Jesus Jauna, zu zara benetako bizitzara eta zoriontasunera garamatzan bidea. Lagun iezaguzu zugan sinesten, beldurrik ez izaten, beti ondoan zaitugula sentitzen. Eskerrik asko gure laguna eta gure itxaropena izateagatik.

ERRAMU-IGANDEA

Jesus maitea, guk ere esan nahi dizugu zugan sinesten dugula eta gure Jauna zarela. Zure jarraitzaile izan nahi dugu eta zuek ikasi nahi dugu mundua, izadia eta gure beharrean daudenak zaintzen.



MAHAIA BEDEINKATZEA

Jesus, eskerrak ematen dizkizugu, gure gurasoek soldata duina irabazteko modua dutelako, eta ikastetxeak eta sendagileak dauzkagulako. Gure konpromisoa eta gure

ahalegina eskaintzen dizkizugu. Partekatzen eta laguntzen ikasi nahi dugu, mundu zuzenagoa eraikitzeko, neska-mutil guztiak haurtzaro zoriontsua izan dezaten.



LAGUNDU LAZARORI

Katekesian ikusi dugun bezala, Lazaro oso behartsua zen.

Gaur egun ere milioika behartsu daude.

Baina bidegabekeriengatik dira behartsu: ez daukate beren elikagaiak eriteko lurrik, enpresaren batek kutsatu egin du edateko zeukaten ura, ezin izan dute ikasketarik egin eta ez daukate lan egokirik bizimodua aurrera atera ahal izateko...

Gurasoek nahikoa diru irabazten ez dutenean, beren seme-alabek lanera joan behar izaten dute, nahiz eta oso txikiak izan, eta ezin izaten dute eskolara joan eta haurtzaroz gozatu.

Zer behar du Lazarok mahaira iritsi eta Epulon aberatsarekin batera jateko?

Bokalen ihesa (osatu hitz hauek)

L N

L R R

S K B D K

Hitz ezkutak

MAHAIAPARTEKATUGARAGARDOAJUSTIZIALOREAGOXOKIA

Hitz hauen guztien artean zein dira bi garrantzitsuenak gizaki guztiak izan dezaten bizitzeko behar den gutxienekoa? Pista bat: aditz bat eta izen bat dira.

IGARKIZUNA

Haurrek, askotan, futboleko baloiak egiten aritu behar izaten dute lanean; edota meategietan, telefono mugikorrek egiteko behar diren mineralen bila.

Zenbaki bakoitzaren lekuan alfabetoko dagokion hizkia ipiniz, Garizuma honetan zabaldu nahi dugun mezua aurkituko duzue.

8	1	22	19	19	5	14		12	1	14	1		2	9	4	5	7	1	2	5	1		4	1	

LETRA-ZOPA

- JUSTIZIA
- LANA
- HAURTZAROA
- OSASUNA
- JOLASAK
- PARTEKATU

J	U	S	T	I	Z	I	A	W	K	L	H
O	C	A	Z	A	L	M	V	T	J	I	A
L	A	N	A	B	K	N	U	O	I	H	U
A	P	O	R	T	S	D	T	S	N	G	R
S	E	F	U	H	K	O	N	A	G	F	T
A	X	A	L	S	O	B	I	S	U	E	Z
K	Ñ	R	W	D	I	O	R	U	M	D	A
A	L	S	V	E	H	P	Q	N	Z	C	R
O	G	P	A	R	T	E	K	A	T	U	O
J	H	T	U	F	G	Z	Y	X	A	A	A

ELKARTASUN-HISTORIAK



Uganda

Nire izena **Shamim** da. Ugandan bizi naiz, Afrikaren ekialdean dagoen herrialde eder batean. Nire gurasoak nekazariak dira, baina daukaten lurra ez da ona, eta ur gutxi daukate; ez dute bizitzeko adina ekoizten. Nik eta ni bezalako beste umeez, batzuetan, soroan lagundu behar izaten genuen, eta ezin izaten genuen eskolara joan. Manos Unidasek eta Cáritasek gure eskualdean egin duten lanari esker, orain eskola bat, bainugela bat eta euri-ura jasotzeko biltegi bat dauzkagu. Baratze bat ere badaukagu, gure elikadura hobetzeko.

Ezagutzen al duzu lanean aritu behar duen adingaberik?
Zuk laguntzen al duzu etxean? Zer egiten duzu?
Ugandan jaio izan bazina, nolakoa izango zen zure bizitza?

Guatemala

Ni **Amarilis** naiz. Lore baten izena da. Guatemalan bizi naiz. Nire auzoko familiek oso lur gutxi daukate elikagaiak ereiteko; eta, gainera, lurak kutsatuta daude, pestizidak eta ongarri kimikoak erabiltzen direlako. Nekazarien Mugimenduak eta Manos Unidasek proiektu bat sortu dute, gazteek enplegua izateko. Horri esker, nire anaiek lan egiteko aukera daukate, eta familiara diru pixka bat ekartzen dute. Horrela, nik ikasketak egin ditzaket eta lagunekin jolas naiteke.

Ezagutzen al duzu jatekorik ez duen inor?
Ba al dakizu zergatik ez daukan jatekorik?
Demagun Amarilisen auzoan bizi zarela.
Nolakoa izango litzateke zure bizitza?



Filipinak

Nire izena **Erwin** da. «Itsasoaren laguna» esan nahi du. Nire gurasoak oso behartsuak dira. Oso lur gutxi daukate, eta ez oso emankorra; horregatik, oso elikagai gutxi lortzen dituzte. Ez naiz eskolara joaten, ikastetxea 7 kilometrora baino gehiagora dagoelako eta oinez joan behar izaten nuelako. Orain nire familiarekin soroan lanean aritzen naiz. Baina nire herrian ikastetxe bat eraikiko dutenez, laster ikasten jarraitzeko eta haurtzaroz gozatzeko aukera izango dut.

Erwin zergatik ez da eskolara joaten?
Zer egin daiteke bere gurasoek elikagaiak lor ditzaten?
Zer egin dezakezu Erwinek bizimodu hobea izan dezan?



Zer egin dezakezu Shamim, Erwin, Amarilis eta beste neska-mutil batzuek haurtzaroz gozatzeko aukera izan dezan?